

Zuloak zuloago, pobreak pobreago

MABEL CENIZO

**CARITASEKO KOMUNIKAZIO
ETA BOLUNTARIOTZA
ARDURADUNA**

Pobreziari begietara begiratzen dio eguneroko bere lanean. Pandemiak berez txarrak ziren egoerak okertu egin ditu.

Amagoia Mujika Telleria



Egoera zaurgarrian dauden pertsonen buruz hizketan hasi eta Mabel Cenizok, Gipuzkoako Caritaseko arduradunak, argi jarri du gaia mahai gainean: pobreziaz hitz egin behar dugu, eufemismo-rik gabe. Gertatzen ari denari dagokion izena jartzea garrantzitsua da, errealitatea zuzen izendatzea horren kontzientzia hartzeko lehen pausoa baita. Pobreziaz, familia sareen ahultzeaz eta bakardadeaz ere hitz egin beharra dago. Eta egoera horien aurrean garatzen dugun elkartasunaren nolakotasunaz.

Pandemia gogorra izaten ari da, batzuentzat besteentzat baino gehiago. Zein da zuek ikusi duzuen errealitatea?

Bi ideia nagusi jarriko nituzke mahai gainean. Batetik, duela hamarkada bat inguru krisi ekonomiko larri batean murgilduta ginela. Gustatzen zait hori gogoraraztea, batzuetan ematen baitu bizi dugun lehendabiziko krisi sozioekonomikoa dela

«Elkartasun
transformatzaileaz
hitz egin behar
dugu, pertsonen
bizitzak hobetzea
helburu duenaz»

oraingo hau. Krisiak modu ziklikoan gertatzen direla ulertu behar dugu, nahiz eta krisi bakoitza pizten duen arrazoia edo elementua desberdina izan. Aipatu dudan krisi horretatik zetozen familiei laguntzen ari ginen gu eta sentsazioa genuen –eta datuek ere hori esaten zuten– zulotik ateratzen ari zirela pixkanaka. Sekulako ahalegina egiten ari ziren lan mundura, etxebizitzaren sarbidera, diru iturri nahikoak izatera gerturatze-ko eta krisi honek atzeraka asko egitea eragin die. Errealitate hori topatu dugu, azken bost-zortzi urteetan Caritasen laguntza izan duten eta beren egoerari eusteko sekulako ahalegina egiten ari diren familiena. Modu prekarioan ari ziren eusten eta, ondorioz, beste krisi bat etorri orduko erori egin dira berriz. Sekulako kolpea izan da.

Bada desberdintasun bat aurreko krisiarekin konparatuta. Caritasera iristen diren pertsonen arazoa ez da bakarrik egoera ekonomiko eskasa dutela, baina beste bi elementu garrantzitsu; ez daukate familia sarerik, ez daukate muturreko egoera sozioekonomiko horretan laguntzeko moduan dagoen familia ingururik. Eta familia ez dagoenean, Estatuaren egitekoa da larri dauden horiei eustea. Estatuak zenbait baliabide jarri ditu mahai gainean, ABEEak kasu (aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak), eta horiek eutsi diote etxe askotako bizimoduari. Estatuak baliabide desberdinen bidez (bizitzeko gutxieneko errenta, diru sarrerak bermatzeko errenta...) eutsi die diru sarrerarik gabe geratu diren familiei. Orduan, Caritasera nork jo du? Erakunde publikoen

Zuloak zuloago, pobreak pobreago

laguntzetara sarbiderik ez dutenek. Horiek izan dira gure atea jo dutenak. Nagusiki egoera irregularrean zeuden migranteak eta lan baldintza prekarioetan zeuden pertsonak, bestelako laguntzak eskuratzeko modurik ez zutenak. Estatuaren laguntzek babesik gabe utzitako pertsona horiek.

Pandemiaren lehen kolpea hori izan zen; lanik eta baliabiderik gabeko jendea eta modu prekarioan lan egiten zuen jendea, ezkutuko ekonomian zebilena eta, ondorioz, laguntza publikoetara heltzeko modua ez zuena.

Familia sareen ahultasuna aipatu duzu. Ez da pertsona migraziozkoen arazoa bakarrik.

Ez eta hori sumatu dugu. Pandemiaren lehen kolpean administrazioa oso-osorik online moduan funtzionatzera pasatu zen. Gerta daiteke zuk laguntza bat izateko eskubidea izatea eta laguntza hori eskatu izana. Baina hilabeteak joan eta hilabeteak etorri laguntza hori ez bada iristen, jaten eta gastuei aurre egiten jarraitu beharra daukazu eta agian ezin duzu. Egoera horretan zeuden etxeei lagundu diegu. Ezustekoa izan da. Kasu horietan familia horiek bazuten aurrera egiteko modua, ez zuten inoiz pentsatu ere egin Caritasen atea jo beharko zutenik, baina horrela gertatu zitzaizen, bat-batean egunerokoari ezin ziotelako aurre egin. Errealitate hori ere gertatu da.

Eta familia sareei buruz ari garela, pandemiak beste hutsune batzuk utzi ditu bistan. Bakarrik dauden pertsona asko detektatu ditugu eta horiei entzuten eta zaintzen aritu gara. Bakarrik eta komunitatetik aparte bizi diren pertsona asko daudela ikusi dugu eta hori ere pobretze bat da, zalantzarik ga-



Argazkiak: Gotzon ARANBURU | FOKU

be. Pobretzea ez da bakarrik ekonomikoa, bakarrik eta harremanik gabe egotea ere bada. Zenbat eta familia sare indartsuagoa eta lagunaren sare garrantzitsuagoa izan, pobretzeko arriskua txikiagoa da. Eta aldrebes, familia eta lagunaren sarerik ez dutenek, bakarrik eta isolaturik egoteaz gain, arazo ekonomiko baten aurrean laguntza izateko aukera gutxiago daukate.

Laguntza publikoak garrantzitsuak dira, baina familia sareak eta komunitatearen parte izatea ere bai. Eta hori nabarmena izan da pandemian. Isolatuta banago eta nork lagundu ez badaukat? Nork egingo dizkit erosketak? Nork zainduko nau? Hutsune

horiek ere oso nabarmen geratu dira pandemian.

Behar materialak eta emozionalak, denak aseta behar ditu pertsonak.

Bai, eta uste dut horiek direla etorkizuneko erronkak, pandemian bistan geratu denez. Gutxieneko baldintzak betetzen dituen bizitza bat izateko eskubidea ziurtatu behar da batetik –etxebizitza, jatekoa, hezkuntza...– eta, bestetik, harreman sozialak, familiakoak, komunitatekoak, elkar zaintzearen ingurukoak... ere oso garrantzitsuak dira eta indartu beharrekoak. Caritasen egitekoa da bi arlo horietan lan egitea; pobre-

zia egoeran dauden eta babes sistema ofizialetatik kanpo geratzen direnen ongizatea zaintzea eta, bestetik, elkar zaintza eta komunitatearen sareak indartzea.

Pandemiak ez omen du arazo berririk ekarri, lehendik zeudenak areagotu egin omen ditu. Pobreak pobreago?

Bai, zalantzarik gabe. Bestetik, beldurraz eta ziurgabetasunaz gutxi hitz egiten da. Bizitzen ari garen guztiak asko du horretatik. Gutxi gorabehera denok dakigu zein diren egoera honetatik ateratzeko tresnak eta baliabideak eta kalean tentsioa gero eta nabariagoa da; nola borrokatuko naiz nirea dena defendatzeko. Kolektibo asko ari dira mahai gainean jartzen beren egoerak eta borroka eta hori baikorra da. Baina ez guke ahaztu behar kolektibo bezala ez direnak antolatuko eta borroka kolektiboa martxan ez dutenak jarriko pobreak direla. Periferian dagoen jendeak ez du berea defendatzeko eta aldarrikatzeko modurik izango, ez dautenak ordezkartzarik, eta gurea bezalako erakunde sozialek hor segitu beharko dugu lanean, pobreen beharrei irtenbideak topatzeko ahaleginean.

Pertsona pobreak ez dauka kolektiboaren kontzientziarik?

Oso zaila da, inork ez duelako pobreen kolektiboarekin identifikatu nahi, pobre izateak ez dauka talde kontzientziarik.

Pandemiak denok zaurgarri bihurtu gaitu. Eta lehendik zaurgarri zena?

Pandemia globala izan da eta denok zaurgarri bihurtu gara. Eta zaurgarritasun horretan, lausotu egin da talde sozial desberdinen existentzia hori. Ez da gauza bera zure etxean isolatuta

egotea eta telelana egitea, edo kalean bizi dena konfinatzea. Nola konfinatu kalean bizi den pertsona? Egon da denok batzeko ahalegin bat, pandemiak denok berdindu bagintu bezala, denok egoera bera bizitzen ariko bagina bezala, eta ez zen egia; pertsona guztiek ez zuten itxeko etxe bat, baziren beren etxean seguru sentitzen ez zirenak, etxe batzuetan pilaketak gertatu ziren... pandemia honen une batzuetan kolektibitatearen sentipena indartzen saiatu gara; denak gara zaurgarriak, hemendik indartsuagoak aterako gara... eta antzeko ideiak zabalduz. Denok itsasontzi berean gauden ideia hori oso garrantzitsua da eta ez da txarra, baina itsasontzi horrek maila desberdinak ditu, «Titanic»-ek bezala, eta klase sozial bakoitza bere tokian ari da bidaiatzen, batzuk goian eta beste batzuk, behean. Lehendik itsasontzi horretan desberdintasuna oso egituratuta zegoen eta horrela jarraitu du pandemian, are nabarmenago.

Pobrezia askotan ez da ikusten edo ez da ikusi nahi. Itxialdian irakasleak egunero marrazki bat egiteko agindu zien ikasleei. Eta etxe batzuetan ez zeukaten ez margorik ez paperik.

Pobrezia ikusteko lehendabizi horri buruz hitz egin behar duzu eta identifikatu. Askotan irakasleak ez dituzte pobrezia egoerak ezagutzen familiek berek ez dituztelako baldintza horiek bistaratzeko. Bestelako lanketa bat egin behar da ikasgelan zer-nolako familiak eta egoerak daukazun identifikatzeko. Egia da, hala ere, detaile guztiak izan ez arren, haurrei begiratu gauza asko igartzen direla. Pandemian eta itxialdian gabezia batzuk ageriago geratu dira. Haurrak ikasgelan daudenean gutxi edo gehiago gelako martxara eta ira-

kaslera moldatzen dira. Baina itxialdian irakaslea da ikasle ba-koitzaren egoerara moldatu be-
har duena, inguru horiek desku-
britu behar dituen.

EAEn haurren babeserako neurri onak eta indartsuak dau-
de. Baina EAEn dagoen desber-
dintasun tasa oso handia da,
nahiz eta pobrezia tasa txikie-
netakoa izan. Nola azaldu daite-
ke hori? Gure haurrak agian ez
daude muturreko pobrezia ego-
era batean, baina beren ikasge-
lako haurrekin konparatuta,
desparekotasun handiak dituzte
baliabideak eta zerbitzuak esku-
ratzeko orduan. Pentsa, haur bat
ez da oso-oso pobretzat hartzen,
baditu koadernoak eta margoak.
Baina bere gelakideek etxean
ordenagailua eta bi tablet dituz-
te. Hori desparekotasuna da.

Haurrek eta gazteek bereziki
kezkatzen naute. Alor horietan
indarra eta inbertsioak jartzea
ezinbestekoa iruditzen zait.
Orain egiten ez dena etorkizu-
nean sumatuko da. Haurrek
eta nerabeek etorkizunari be-
giratzeko tresnak behar dituz-
te: hezkuntza, etxebizitzarako
sarbidea, lan mundurako sar-
bide duina...

**Kalean bizi den jendea ere ai-
patu duzu lehen. Zer bistaratu
du pandemiak?**

Caritasek eta beste sare batzuek
egindako lana aipatuko nuke,
beste elkarte sozial batzuekin el-
karlanean harrera, babesa eta la-
guntza eskaini diegu kalean bizi
direnei. Zenbait gauza deskubri-
tu ditugu. Batetik, Eusko Jaurla-
ritzak etxerik gabeko pertsonak
artatzeko estrategia bat dauka,
paperean oso ondo artikulatuta
dagoena. Ondo legoke paperean
dauden gauza horiek praktikara
eramateko bideak izatea; balia-
bideak, programak, inbertsio-
ak... pandemiak hori utzi du
agerian, batzuetan politikak pa-



perean daudela, aurrekonturik
eta baliabiderik gabe.

Bigarrenik, deskubritu dugu
uste genuen baino jende gehia-
go dagoela kalean bizitzen, pen-
tsatzen genuena baino hiru bi-
der gehiago. Eta, hirugarrenik,
Estatuak martxan jarri dituen
zenbait babes neurri bertan be-
hera geratzen direnean –etxega-
betze batzuk atzeratu ditu, alo-
kairu batzuk lagundu...–, egoera
oso konplikatuekin topo egingo
dugula uste dugu, etxegabetze-
ak ugarituko direla eta kalean
bizi den jendearen kopurua are-
agotuko dela. Nahiago genuke
erratzera, baina gauzak okertuko
direlakoan gaude. Etxebizitzar-
en arloan eta lanaren arloan
erronka handiak ditugu eta ho-
riei eutsi beharko zaie.

**Batzuk krisietatik ateratzen di-
ra eta beste batzuk krisian ge-
ratzen dira betirako.**

Hori horrela da krisi guztietan.
Juxtu 2018an txosten bat argita-

*«Ez genuke ahaztu
behar kolektibo
bezala ez direnak
antolatuko eta
borroka kolektiboa
martxan ez dutenak
jarriko pobreak
direla. Periferian
dagoen jendeak ez
du berea
defendatzeko eta
aldarrikatzeko
modurik izango»*



ratu genuen eta bertan nabar-
mentzen genuen bazela jende
multzo garrantzitsu bat prekari-
tatetik ateratzea lortu zuena eta
integrazio sozialerako pausoak
eman zituen. Baina, era berean,
nabarmen zen muturreko
bazterketa sozialean zeudenen
kopuruak gora egin zuela. Ale-
gia, okerre zeudenen kopuruak
gora egin zuela. Krisi guztien
ondorioz gertatzen da; badira
muturreko bazterketa sozialean
geratzen diren pertsonak. Eta
pobreziaren hondoratzea ere
kontuan izan behar da; zenbat
eta denbora gehiago eman po-
brezia egoeran, gero eta zailagoa
da hortik ateratzea.

**Krisi honetatik hobeak aterako
ginela esaten zen, ba.**

Itxaropena ez genuke galdu be-
har. Kontziente izan behar dugu
pertsona guztiek behar berak,
desio berak eta beldur antzeko-
ak ditugula. Hori horrela dela
ulertzeko bizipen kolektiboa oso
garrantzitsua da. Era berean,
ulertu behar dugu batzuk beste-
ak baino urrunago edo gertuago
gaudela behar eta desio horiek
betetzetik. Asko hitz egin da el-
kartasunaz eta garrantzitsua da
hori mahai gainean jartzea; el-
kartasuna ni eta nire inguruko-
ak hobeto bizitzeko, baina baita
beste batzuk hobeto bizitzeko
ere. Baina badago arriskua el-
kartasun horrek benetako auke-
rak ez sortzekoa. Gerta daiteke
elkartasun hori bideratzea per-
tsona horien oinarritzko beharra
asetzera, baina ulertu beharko
genuke pobrezian dauden per-
tsonen aukera hobeak izateko
moduak sortu behar direla. Ba-
tzuetan, eta bereziki gabonen
giroan, asko hitz egiten da elkar-
tasunaz, baina nik uste dut el-
kartasun horrek transformatzai-
lea izan behar duela. Pertsona
pobreek ez dute jatekoa baka-
rrik behar; lanpostu bat behar

dute, etxebizitza duin bat, beren
seme-alabek kalitatezko hez-
kuntza izan dezatela, kirola egi-
teko modua izatea, gailu elek-
tronikoak izatea, auzoko
bizitzan parte hartzea... Batzue-
tan gauza hauek ahaztu egiten
zaizkigu eta gauza horiek dira
pertsonek bizitzak hobetzen di-
tuztenak. Hori da elkartasun
transformatzailea eta ideia ho-
rietan indarra egiten duten kan-
painak bultzatzen ari gara.

Adibidez?

Adibidez, elikadurara modu au-
tonomoagoan eta duinagoan
iristeko kanpainak bultzatzen
ari gara. Beharra duten familiei
laguntza ekonomikoak bidera-
tzen dizkiegu elikagaiak eroste-
ko aukera izan dezaten beren
ohiturretatik, gustuetatik abia-
tuta. Kanpaina hauen helburua
ez da elikagaiak ematea, baizik
laguntza ekonomikoak ematea
familia horiek supermerkatu
batean sartu eta nahi duten
erara eros dezaten. Garrantzi-
tsua da supermerkatu sartu
eta gustuko dituzun gailetak
erostea. Gurea bezalako jendar-
te batean oso garrantzitsua da
elkartasunaren inguruko me-
zuak eta ideiak aztertzea eta
berritzea. Elkartasuna bai, bai-
na nolakoa? Horri buruz pen-
tsatu beharko genuke. Gure el-
kartasuna nola kudeatzen
dugun oso garrantzitsua da.
Pobreek elikaduraz aparte bes-
te behar batzuk dituzte. Goa-
zen pentsatzera elkartasuna ga-
ratzeko moduen inguruan, ea
badauden modu duinagoak,
pertsonek autonomia ematen
dietenak, ez dutenak estigmati-
zatzen... Garrantzitsua da haus-
nartzea egiten ditugun gauzek,
bultzatzen dugun elkartasun
ereduak, pobreziaren aurka
egiten ote duen edo pobrezia
hori betikotzen laguntzen ote
duen.